

18/1997LEGEA, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa.

ZIOEN ADIERAZPENA

I

Lege honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi Estatutuko 10.22 atalean xedatzen dena garatzea da. Izan ere, atal horretan jartzen duenez, autonomia-elkarte horrenak dira profesionalen elkargoei buruzko eta tituludun lanbideetako jarduerari buruzko eskumen guztiak, Konstituzioko 36. eta 139. ataletan xedatutakoa ahaztu gabe.

Orain arte, gai honi buruzko arauetan gehienbat kezka bakarra nabari zen: elkargo-motako erakundeak. Eta elkargo horien barruko lanbideen jarduerari, hau da, kolejiatu izenaz ezagutzen diren lanbideen jarduerari buruzko gairen bat aztertzen zenean ere, beti elkargo horien ikuspuntutik egiten zen. Horregatik, elkargorik ez duten lanbideak bazterrean geratu dira, funtsean besteen antzekoak izan arren.

Egoera horren aurrean legearen erantzuna etorri da, hutsune horiek gainditu eta, aldi berean, aipatzeko moduko berrikuntza garrantzitsuak egitera datorrena.

Horrenbestez, legeak, lehenengo eta behin, elkargoetatik kanpoko tituludun lanbideen gaia ere jasotzen du, elkargoen antolaketari bakarrik lotu beharrean. Azken batean, lanbideak lanbide dira elkargoetan antolatuta egon edo ez. Erakunde horien helburuetako bat, gainera, jarduera profesional egokia bermatzea bada, ez du zentzu handiegirik lanbide horiek ahaztuta uzteak, horrelako antolaketarik izan ere izan gabe gainera. Lanbide-mota biek behar dute, era batera edo bestera, araututa egon, elkargoa eduki nahiz eduki ez. Baina, beharbada, bigarren horiek izango dute arau-premia handiagoa, elkargoen antolaketa ere ez dutenez.

Lege-balioa dela eta, lege honek berrikuntza bat dakar, lanbideak arautzeari lege-balio egokia ematen baitio. Izan ere, ezin dugu ahaztu Konstituzioko 36. atalean lege-erreserba agintzen dela, hain zuzen ere legeak arautu behar omen baititu elkargo profesionaletako araubide juridikoaren berezko berezitasunak eta tituludun lanbideen jarduna.

Lege honek Konstituzioaren agindu hori betetzeko asmoa duenez, arautzeko modu horiek eramandako bidetik urruntzeko erabaki argia hartu du, elkargoen antolaketaz gain, jarduera profesionalaren araudi-esparrua ere jasotzen du eta.

Arrazoi horiengatik, legea bitan banatuta dago: alde batetik, jarduera profesionala arautzen du, eta, bestetik, elkargoen jarduera, elkargoetan bilduta dauden lanbideei dagokiena.

Lehenengo zatian dagokionean, jarduera profesional guztietarako araudi-esparru bakarria ezartzen du, dena izanagatik ere, berezitasun horiekin zerikusirik ez duten beste arau batzuekin erabat bateragarria dena. Horrela, jarduera profesional guztietarako esparru hori gutxieneko esparrua dela esan daiteke, beste arlo batzuetako arau-multzoak baztertzeko ez dituenak. Honenbestez, beste osagai bat lotzea lortu da: egiturarena. Horrela, jarduera profesionala aztertzeari benetan eman behar zaion dimentsioa osatuko dugu, lanbiderako askatasun-eskubidearen oinarritzko edukia zehazten duten Konstituzioko postulatuetan ere kontuan hartzen direnez.

II

Bigarrenik, hau da, lanbide kolejiatuak direla eta, legea idazterakoan oso kontuan hartu da arakasta zerbaiten mende baldin badago, interes orokorren eta arlokakoen arteko oreka prezia-tua lortzearen mende dagoela hain zuzen ere. Publikoaren eta pribatuaren arteko sinbiosi hori lortzeko ahaleginetan, kontuan hartu beharko da erakundeek elkargoen antolaketari ikuspuntu jakin batetik heldu behar diotela, hau da, lanbide batzuen jardunaren barruan kolektibitatea edo interes publikoa defendatzeko ikuspuntuari heldu behar diotela, profesionalak defendatzera lerratu beharrean. Elkargoen antolaketak zein toki bete behar duen zehazteko erabili behar den formulak, alde batetik, funtsezko garrantzia eman behar dio elkargoek beren burua administratzeari, eta, beste alde batetik, gatazkarik baldin bada, interes orokorra gailentzeko bidea eman behar du. Eta oreka-formula hori da, hain zuzen ere, lege honetan jaso nahi izan dena.

III

Nahitaez elkargo profesionalen bateko kide izan beharrak pizten duen auzia arautzeko, Konstituzioaren aginduekin bat, elkargoaren sorrera-legean eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zer jartzen duen begiratzea erabaki da irizpide orokor modura, betiere, kasu bakoitzean tartean dagoen interes publikoaren arabera. Honenbestez, ez da lanbide guztietarako arau bakar bat ezarri, egoera desberdin asko dagoelako eta salbuespen garrantzitsu bat gertatuko litzatekeelako.

Salbuespen hori administrazio publikoan lan egiten duten profesional batzuk dira, hain zuzen ere, administrazio-zuzenbideari edo lan-zuzenbideari lotutako zerbitzu-harremana dutenak. Eta gai horri heltzeko orduan Konstituzio Auzitegiaren doktrinari jarraitu diogu, jakinaren gainean aginte publikoek oztopoak ezabatzeko eta gizartearen eskari zabalari erantzuteko legezko neurri egokiak hartzeko erantzukizuna dutela –azkenaldi honetan handiagotu egin baita, asko izanik arlo publikoan lan egiten duten profesionalak–, eta, beste alde batetik, elkartzeko eta sindikatuetan biltzeko oinarrizko eskubideekiko errespeturik zorrotzenarekin. Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 19ko 131/1989 Epaiak ere horixe onartu zuen, profesionalen jarduna dela-eta tarteka daitezkeen interes publikoak zaintzeko ardura administrazioak har dezakeela adierazten baitu, betiere, legegileak agindutako kasuetan eta baldintzetan. Halakoetan, gehiegizkoa izango litzateke interes publikoa zaindu beharrez profesionalari elkargoren bateko kide izatea eskatzea, profesionalak kontratatzen dituen administrazioa zaintza-lan hori egiteko gai izanik. Baina, jakina, dedikazioa erabatekoa ez bada, profesionala ez da salbuespen horretako bat, eta, beraz, elkargoren bateko kide izatea eska dakiok.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia-erkidegoko eta tokiko funtzio publikoaren errejimenean dituen ahalmenak kontuan hartuta (Estatutuko 10.4 atalean daude jasota ahalmen horiek), salbuespen hori Euskal Autonomia Erkidegoko premia zehatzetara egokitzea komeni dela pentsatu dugu, administrazio publikoak modu-moduan direlako menpeko profesionalak antolatu, kontrolatu, begiratu eta zigortzeko ahalmena beren gain hartzeko. Horrelakoetan, gainera, profesionalen jardunean tartekatzen diren interes publikoak zaintzeko ardura, elkargoen izate-arrazoia dena, administrazio publiko horiek izango dute zuzenean, elkargoak tarteko baliabide gisa erabili beharrik gabe. Aukera hori are eta ulergarriagoa izango da kontuan hartzen badugu elkargoek legearen aldetik ez dutela, profesionalek administrazio publikoan dihardutenean, goian aipatutako ahalmen horietako gehienak beren gain hartzeko aukerarik, nahiz eta bestelakoetan legegileak berak eman elkargoei beren kideekiko ahalmen horiek.

Hala eta guztiz ere, medikuen eta erizainen kasuan, salbuespen-errejimen horri bidea emateko, Gobernuaren deklarazioa beharko da aurretik. Deklarazio hori dekretu bidez egin beharko du eta,

betiere, interes publikoa eta osasun-sistema nazionalaren funtzionamendu egokia zaindu beharra kontuan hartuta.

IV

Bada beste gai bat kontuan hartu beharrekoa elkargo profesionalak arautzerakoan, hau da, bihar-etzi elkargoak antolatu ahal izango dituzten tituludun lanbideak zehaztea, aurreko errejimenetik datorkigun neurrigabeko hazkundea gerarazteko. Legeak, gaur egungo 'statu quo' errespetatuz, elkargoak antolatzeko zein titulazio eskatu erabakitzeko ahalegin garbia egin du, eta, alde horretatik, unibertsitateko titulu akademikoa hartu dugu elkargo-antolaketako oinarritzko elementutzat. Izan ere, aurreko azken hamarkadetako gizarte eta politikaren bilakaerak anbiguotasunaren ateak zabaldu zituen, eta, orain, anbiguotasun hori zehaztea dagokigu. Azkenean, hainbat alderditatik begiratuta ere, elkargoen helburuak jatorrizkoetatik erabat aldentuta geratu ziren, eta elkargoak, azken batean, sindikatu-ordezkaritzaren azken gotorleku bilakatu ziren, orduko egiturak ez ziren-eta kolektiboen arrazoizko eskakizunei erantzun egokia emateko gai. Baina gaur egun, horrelako antolakundeak ezin dira elkargo profesionaltzat hartu, gizartean eragina duen funtzio publikorik ez dutenez.

Beste alde batetik, profesionalen kontseiluak sortzeko aukera ere jaso da. Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez sortu beharko da, elkargoen beren ekimenez eta osatuko duten kide guztien adostasunarekin. Kontseiluak sortzea aukerakoa izango da.

Aipamen berezia merezi du, era berean, lege honen bidez sortuko den Tituludun Lanbideen Errejistroak. Helburua herritarrei beste informazio-bide bat eskaintzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko elkargoen errealitatearen jakitun izan daitezen eta errejistroan izena ematea erabakitzen duten profesionalen berri izan dezaten. Alde horretatik, ulertzeko moduko eskakizun teknikoak direla eta, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioaren Ariel eta Herri-prezioei buruzko Legea aldatu egin behar da, errejistro-zerbitzuen tasa berria ere jasota gera dadin. Tasa hori zazigarren xedapen gehigarrian jasota dago.

V

Beste alde batetik, argi geratu behar du lege honek Autonomi Estatutuko 10.22 atalean berariaz aipatzen diren gainerako konstituzio-aginduak ere betetzen dituela, eta Konstituzio Auzitegiak ulertzen dituen moduan bete ere. Auzitegi horren iritziz, elkargoek jardura nagusiki pribatuaren ondoan badute halako beste dimentsio publiko bat, eta horregatik hartzen ditu legeak pertsona juridiko-publikotzat.

Dimentsio publiko hori da, hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak hartu duen abiapuntua elkargoak lurraldeetako administrazio publikoekin parekatzeko, dimentsio horretarako antolaketa eta eskumenen kasuan besterik ez bada ere. Parekatze hori erabakiorra da estatuko legeriaren esku uzteko iinteres profesionalak ordezkatzeko dituzten zuzenbide publikoko korporazioen antolaketa eta eskumenek jarraitu behar dituzten hatsapen eta oinarritzko arauak zehaztea.

Horregatik, lege honetan jasotzen diren elkargo eta kontseilu profesionalen jardunari, antolaketari eta eskumenei buruzko irizpide orokorrak, legegintza-teknikei eta sistemaren koherentziari jarraiki, gai horri buruzko egungo legerian zehazten direnak izango dira, hau da, irizpide horiek zehazterakoan estatuko oinarritzko legeria hartuko da kontuan, estatuak legeria hori Konstituzioko 149. ataleko 1.1 eta 1.18 puntuen bidez ematen zaizkion eskumenetan oinarrituta sortu du eta.

Joera horren atzean, azken batean, bi arrazoi nabari dira, alde batetik, ordenamendu plurala modurik zuzenenean ardaztu behar delako, baina, beste alde batetik, autonomiaren printzipioa

ere errespetatu beharra daukagulako. Eta legegintza Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenekin zerikusirik ez duten lehenagoko beste erabaki batzuen mende jarriko bagenu, autonomia hori apurtu egingo genuke.

Azkenik, lege hau egiteko prozesuan Euskal Autonomia Erkidegoko elkargo profesionalen iritzari zer-nolako garrantzia eman zaion azpimarratu behar dugu. Aurretiazko irizpenen trami-tean egin zituzten baliozko ekarpen asko testuan jasotzea erabaki dugu, lege honen eraginpean geratuko diren gizarteko ahalik eta talde gehienen borondatea erakartzeko gogoz, araugintzako edozein testutan egin behar den bezala.

I. IDAZPURUA

TITULUDUN LANBIDEETAKO JARDUNA

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. atala.– Xedea

Lege honen xedea da tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da.

2. atala.– Kontzeptua eta sailkapena

1.– Tituludun lanbideak dira zientzia edo jakinduria-adar bateko ezaguerak eta teknikak era-biltzen dituztenak eta gaitasuna unibertsitateko edo lege ezarritako edo agintari eskudunek onartutako beste nolabaiteko titulu akademiko batez egiaztatua dutenak.

2.– Tituludun lanbideak kolejiatuak eta kolejiatu gabeak izan daitezke.

3.– Dagokion legean hala direla zehazturik daudenak dira lanbide tituludun eta elkargodunak.

4.– Gainerako tituludun lanbideak kolejiatu gabeak dira.

3. atala.– Araututako esparrua

Idazpuru honetan xedatutakoa alderdi profesionalari dagokio soilik, eta ez du zerikusirik lanbide batean jarduteko harreman juridikoak berez dakartzan eskubide eta betebeharrekin.

II. ATALBURUA

JARDUTEKO BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK

4. atala.– Hatsapen orokorra

Lege honen ondorioetarako besterik ez, eta kasu bakoitzean bete behar diren legezko aginduak ahaztu gabe, atalburu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenek dagokion lanbidean jar-duteko eskubidea izango dute eta tituludun profesionalak izango dira, betiere, idazpuru honetan xedatutakoaren arabera.

7. atala.– Kontratatzeko askatasuna

1.– Tituludun profesionalak lanbide bereko beste batek esku artean dituen gaietan aritzeko aukera ere izango dute, lanbide bakoitzeko arau eta ohitura orokor nahiz berezien arabera.

2.– Gaiagatik edo fundamentuzko beste arrazoi objektibo batzuk direla medio, elkargoaren arauak exijitzen badute jardunak eskusiboa izan behar duela, edota interes-gatazka sortzen denean, arauak berek finkatuko dute profesionalak ordezkatzeko baldintzak zein izango diren, betiere, kontratatzaileek kontsumitzaile eta erabiltzaile modura dituzten eskubide eta bermeetatik ezer kendu gabe.

III. ATALBURUA

JARDUERA PROFESIONALA NOLA GAUZATU

8. atala.– Errejimen orokorra

Idatzizko araurik ez badago, tituludun profesionalak dagokion lanbidean indarrean diren ohitura orokorrak bete beharko ditu bere jardunean.

9. atala.– Prestakuntza. Autonomia.

1.– Tituludun profesionalen betebeharretako bat beren lanbidearen oinarrian dagoen zientzia edo jakituria-adarraren berezko arau teknikoetara egokitzea da, eta horretarako, arau tekniko horien inguruko kontraste enpirikoak eta esperientziak ere kontuan hartu beharko dituzte. Honen bestez, laneko prestakuntzak etengabea izan behar du.

2.– Tituludun profesionalak erabateko askatasuna eta independentzia izan behar du bere lanean. Gizarteari zerbitzua ematea, zerbitzua ematen zaion subjektuaren interesa eta lanbideko bete-behar deontologikoak zehatz-mehatz betetzea izango ditu laneko jarraibideak, eta muga bakarrak, berriz, legeak agindutakoak.

3.– Aurreko azpiataletan zehaztutako gaiaren barruan, lanbide batean jarduteko harreman juridikoa dela-eta tituludun profesionalak, nahitaez, bere lan-irizpideez bestelakoan arabera aritu behar badu gai jakin batean, irizpideekin bat ez datorrela azaldu eta idatziz jasoaraztea eska dezake. Sekretu profesionala gordeta egongo da beti, eta profesionalaren lanak ez du horregatik eraginkortasunik galdu behar.

10. atala.– Sekretu profesionala

Sekretu profesionala eskubidea eta betebeharra da tituludun profesionalarentzat, betiere, Konstituzioarekin bat eta dagokion legeria espezifikokoak dioenaren arabera.

11. atala.– Intrusismoa eta zalantzazko beste jarduera profesional batzuk

1.– Tituludun profesionalak bere entzutera iristen diren intrusismo-kasu eta zalantzazko jarduera profesional guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari edo dagokion elkargoari jakinarazi behar dizkio, bere lanbideak elkargorik badu behinik behin.

2.– Hona hemen zalantzazko jarduera profesionalak zein diren: lanbideko arau deontologikoak betetzen ez dituztenak; behar besteko arreta profesionalik ez izateagatik, zerbitzu profesional horiek jasotzen dituztenen kaltetan direnak, edo lehia garbia hausten dutenak, Lehia Zaintzeko Legearen, Lehia Desleialaren Legearen, elkargo profesional bakoitzak lehia desleialaren gainean ematen dituen jarraibideen beren eta Publizitatearen Lege Orokorraren arabera.

12. atala.– Asegurua

1.– Tituludun profesionalak aseguruaren bat izan behar dute erantzukizun zibila dela-eta lanean dituzten arriskuei erantzuteko.

2.– Betebehar hori ez da derrigorrezkoa izango hirugarrenen eskubideak bermatuta baldin badaude kasuan kasuko jarduerak bete behar duen beste legeria baten bidez edo orokorrean bete beharreko eta helburu horretarako egindako akordioaren baten bidez.

3.– Lanbide kolejiatuen kasuan, elkargoek hartu beharko dituzte beren kideek aseguru-baldintzak betetzeko beharrezko neurriak.

13. atala.– Derrigorrezko lana

1.– Arrisku handiren bat baldin badago, edo hondamendi nahiz gizarte-mailako zoritxarren bat gertatzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak tituludun profesionalak lan egitera behartzeko aukera du.

2.– Betebehar horrek kasuan kasuko lanbideko tituludun profesional guztiak hartzen ditu bere baitan. Esparru geografikoa, berriz, Euskal Autonomia Erkidego osoa edo, arrazoia beste esparru txikiago batera mugatzen bada, beste esparru txikiago hori izango da.

3.– Aurreko azpiataletan erabakitakoaren ondorioetarako, elkargo profesionalak kideen lana koordinatzeko behar duen laguntza guztia eskaini behar diote dagokion aginteari.

IV. ATALBURUA

DIZIPLINA-ARAUAK

14. atala.– Arau-hausteen sailkapena

1.– Tituludun lanbideen jarduna atalburu honetan jasota dauden diziplina-arauen mende egongo da.

2.– Tituludun lanbideen jardunean egin daitezkeen arau-hausteak izango dira oso larriak, larriak edo arinak.

15. atala.– Profesionalen arau-hausteak

1.– Hona hemen oso arau-hauste larriak:

- a) Lanean jardutea 5.1 a) atalean zehaztutako titulurik izan gabe.
- b) Betebehar profesionalak ez betetzea, profesionalaren partehartzea eskatu dutenentzat oso kaltegarria denean.
- c) Sekretu profesionala haustea.
- d) Lanean aritzea horretarako gaitasuna galduta duela, bateraezina zaionean edo debekatuta duenean.
- e) Laneko arrazoiengatik egindako doloeko delituak, partehartze-maila edozein izanda ere.
- f) Kontseilu eta elkargo profesionalak onartutako estatutu-xedapenetan oso arau-hauste larritzat hartzen direnak. Arau-hauste horiek, aurreko mota berekoak izanik ere, kasuan kasuko lanbidearen berezko ezaugarriak izango dituzte eta kontseilu edo elkargoko kideei lotuta egongo dira.

g) Bi urtetan bi arau-hauste larri egitea gutxienez. Hurrengo azpiataleko j) letran aipatutako arau-haustea ez da horretarako kontuan hartuko.

h) Lanbide kolejiatu batean jardutea dagokion elkargoko kide izan gabe.

2.– Hona hemen arau-hauste larriak:

a) 5.1 d) atalean xedatutakoa ez betetzea.

b) Betebehar profesionalak ez betetzea, profesionalaren partehartzea eskatu dutenentzat kaltegarria denean.

c) 11. atalean jasota dagoen jakinarazpen-betebeharra ez betetzea.

d) Aseguratzeko betebeharra ez betetzea.

e) 13. atalean jasota dagoen derrigorrezko lana ez betetzea, zentzuzko arrazoirik gabe eta behar bezala eskatu izan arren.

f) Irain larriak egitea lanbide bereko beste profesional batzuen duintasunari nahiz lanbideko gobernu-organoei edo laneko arrazoiengatik berarekin harremanetan diren pertsona edo erakundeek, bai eta beroriei agresio fisikoak egitea ere.

g) Lehia desleiala diren egintzak, Lehiaren Zuzenbidea eta lehia desleialaren inguruan indarrean dagoen legediaren arabera.

h) Kontseilu edo elkargo profesionalari nahiz barruko organoei behar bezala lan egitea eragozten dieten ekintzak burutzea.

i) Kontseilu eta elkargo profesionalak onartutako estatutu-xedapenetan arau-hauste larritzat hartzen direnak. Arau-hauste horiek, aurreko mota berekoak izanik ere, kasuan kasuko lanbidearen berezko ezaugarriak izango dituzte eta kontseilu edo elkargoko kideei lotuta egongo dira.

j) Bi urtetan bost arau-hauste arin egitea gutxienez.

3.– Lana arautzen duen beste edozein agindu haustea arau-hauste arina izango da, larria edo oso larria ez denean eta bete beharreko araudian edo kontseilu nahiz elkargo profesionalak onartutako estatutu-arauetan hori jartzen badu, 1.f) eta 2.i) azpiataletan irakur daitekeen eran.

4.– Atal honetan xedatutakoa zuzen-zuzenean bete behar bada ere, arau-hausteen mota bakoitza osatzen duten ekintza zehatz guztiak zehaztu beharko dira 1.f), 2.i) eta 3. azpiataletan aipatutako arauetan.

16. atala.– Zigorrak

1.– Oso arau-hauste larriengatik honako zigor hauetako bat jar daiteke:

a) Lanerako gaitasunik gabe uztea urtebete eta egun batetik hogeitara bitartean, eta, betiere, 17. atalean zehaztutakoaren arabera.

b) 500.001 eta 5.000.000 pezeta bitarteko isuna.

2.– Arau-hauste larriengatik honako zigor hauetako bat jar daiteke:

a) Lanerako gaitasunik gabe uztea gehienez ere urtebeterako, eta, betiere, 17. atalean zehaztutakoaren arabera.

b) 50.001 eta 500.000 pezeta bitarteko isuna.

3.– Arau-hauste arinengatik honako zigor hauetakoren bat jar daiteke:

a) Ohartarazpena.

b) Gehienez ere 50.000 pezetako isuna.

4.– Arauak hautsi dituenak etekin ekonomikoa atera badu arau-hauste horregatik, isuna handiagoa izango da. Hain zuzen ere, etekin hori zenbatekoa izan den kalkulatu ondoren, etekin horren eta gorago aipatutako kopuruetatik handienaren arteko aldea gehituko zaio, gutxienez, berez ordaindu beharreko isunari, eta gehienez, alde horren bikoitza.

5.– Zigorrak kasuan kasuko gora-beheren arabera zehaztuko dira.

6.– Zigor horiez gainera, beste edozein erantzukizun baldin badago, zigortuek erantzun egin beharko dute.

7.– Elkargoek diziplina betearazteko gaitasunagatik jasotzen dituzten isun-ordainketa guztiak etenik gabeko lan-prestakuntzako jarduerak ordaintzeko erabiliko dira. Horretarako, dagokion prozedura kontuan hartuta betiere, beharrezkoak diren neurriak hartu eta beteko dira, kasu bakoitzean bete behar den araudiaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak diziplina betearazteko gaitasunagatik jasotzen dituen isun-ordainketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian sartuko ditu.

17. atala.– Lanerako gaitasuna kentzea

1.– Tituludun lanbide bateko arauak hausten dituenak, zigor modura lanerako gaitasuna kentzen badiote, zigorrak irauten duen bitartean ezin izango da lan horretan aritu.

2.– Kasuan kasuko tituludun lanbideean aritzeko titulu guztiak izanagatik ere, lanerako gaitasuna kentzeko 30.1 atalean jartzen duena betetzen ez duenari. Pertsona hori, halakoetan, elkargoko kide izateko eskatzen duenean hasiko da zigorra betetzen. Eskaria erantzunik gabe geratuko da zigorra bete arte.

3.– Organo erabakitzaileak, dagozkion ondorioetarako, zigorra jarri dela jakinaraziko die administrazio eskudunei, Autonomia Erkidegoko kontseilu profesionalari, horrelakorik badago, eta estatu-mailako kontseilu edo elkargoari.

4.– Gaitasuna kentzeari dagokionez, elkargoaren erabakia edo administrazioaren akordioa irmoa denean hasiko da gaitasungabetzea. Zigortua lehenagotik ere beste kausa edo arau-hauste batzuegatik lanerako gaitasunik gabe baldin badago, aurrekoa amaitzen denean hasiko da azkeneko gaitasungabetzea, eta horrela egingo da den-denak bete arte.

18. atala.– Preskripzioa

1.– Oso arau-hauste larriek hiru urtera preskribituko dute, larriek bi urtera eta arinek urtebetera.

2.– Preskripzio-epea araua hausten den egunetik aurrera hasiko da.

3.– Zigortzeko prozedurari hasiera ematen bazaio interesatua jakinaren gainean dagoela, preskripzio-epea eten egingo da. Baina zigortzeko espedientea sei hilabete baino gehiagotan geldirik baldin badago eta errua ez baldin bada ustezko arau-hauslearena, preskripzio-epea berriz ere martxan jarriko da.

4.– Oso arau-hauste larriengatik jarritako zigorrek hiru urtera preskribituko dute, arau-hauste larriengatik jarritakoek bi urtera, eta arinengatik jarritakoek urtebetera. Hala ere, hiru urteko edo denbora gehiagoko gaitasungabetze profesionaleko zigorretan, preskribitzeko aldia zigor-aldiaren berdina izango da.

5.– Zigorra jartzeko erabakia erabaki irmo bilakatzen den egunaren hurrengotik aurrera hasiko da zigorra preskribitzeko epea.

6.– Betearazteko jardunbideari hasiera ematen bazaio interesatua jakinaren gainean dagoela, preskripzio-epea eten egingo da. Baina jardunbide hori sei hilabete baino gehiagotan geldirik baldin badago eta errua ez baldin bada arau-hauslearena, preskripzio-epea berriz ere martxan jarriko da.

19. atala.– Prozedura

1.– Arau honetan aurreikusitako zigor-jaurbidea ondorengo printzipioen arabera egiteratuko da:

- a) Legezketasuna.
- b) Atzera-indarrak ez.
- c) Motak.
- d) Heinberekotasuna.

2.– Ezin da zigorrik jarri dagokion espedienteari hasiera eman gabe. Administrazio-espedientean, gutxienez, honako hatsapen edo printzipio hauek bermatu beharko dira:

- a) Errugabetasun-presuntzioa.
- b) Kaltetuari entzutea.
- c) Azken erabakiaren arrazoiak.
- d) Organo instruktorea eta erabakitzailea bereiztea.

3.– Hona diziplina-ahalmena dutenak:

a) Kontseilu profesionalak, kaltetua elkargoren batean edo kontseiluan bertan gobernu-organo-
ren bateko kide denean.

b) Elkargo profesionaletako gobernu-organoak, elkargoko kide diren profesionalen beste kasu guztietan eta baita a) azpiataleko gainerako kasu guztietan ere, dagokion kontseilu profesionalik ez dagoenetan.

c) Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, profesionalak ez badira elkargo bateko kide.

4.– Diziplina-ahalmenaz baliatuz emandako erabakien aurka honako errekurtsio hauek aurkez daitezke:

a) 49.1 eta 2 atalean araututakoak, hurrenez hurren, erabakia eman duten organoak aurreko puntuko a) eta b) azpiataletan zehaztutakoak baldin badira.

b) Bete beharreko administrazio-legerian araututakoak, erabakia eman duen organoa aurreko puntuko c) azpiatalean zehaztutakoa baldin bada.

5.– Zigortzeko prozedura araututa egongo da estatutuetan –lanbidea elkargo batean antolatuta baldin badago– eta lege hau garatzeko ematen diren arauzko xedapenetan.

6.– Zigor-espedita tramatzerakoan, beharrezkoak diren neurri kautelar guztiak hartu ahal izango dira kaltetutako interes publikoa eta espeditarearen amaiera egokia bermatzeko.

20. atala.– Betearaztea

1.– Elkargo eta kontseilu profesionalen esku egongo da beren zigortze-erabakiak derrigorrez betearaztea. Beren kasa egingo dute eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan aplikatu daitezkeen arauen arabera.

2.– Elkargo eta kontseilu profesionalen erabakiek zigor modura lanerako gaitasuna kentzen badute, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, ordezkio modura, erabaki horiek betearaztea.

3.– Zigorrak bete beharrekoak izango dira administrazio-bidea agortzen duen egintza edo erabakitik aurrera.

V. ATALBURUA

TITULUDUN LANBIDEEN ERREJISTROA

21. atala.– Tituludun Lanbideen Errejistroa

1.– Tituludun Lanbideen Errejistroa sortu da, Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailaren mende egongo dena, ondorio bakar baterako, hau da, errejistroan ageri diren datuak ezagutzera emateko.

Errejistroa bi zatitan banatuta egongo da:

Lehena: «Tituludun lanbideena». Elkargorik gabeko lanbideetan aritzen diren eta 5. ataleko baldintzak –eskatzeko zaizkienak behinik behin– betetzen dituztenak inskribatzeko izango da, betiere, arauz erabakitzen diren beren gora-behera guztiekin batera.

Izena ematea borondatezkoa izango da.

Bigarrena: «Elkargo eta Kontseilu profesionalena». Hona hemen zer inskribatuko den:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten elkargo profesionalak eta elkargoetako kontseiluak.

b) Elkargo eta kontseiluen estatutuak, izena, gobernu-organismoak eta osatzen dituztenen identitatea, eta alde horietatik egiten diren aldaketak guztiak.

c) Helbidea, egoitzak eta delegazioak.

d) Osatzeak, aldaketak eta deuseztatzeak.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoa baino esparru zabalagoetan jarduten duten elkargo profesionalak ere zati honetan sartzeko aukera izango dute, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan organo iraunkorren bat badute. Elkargo horien datu guztiak aparte inskribatuko dira, beste azpizati batean.

2.– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak legezkoak ez direnean bakarrik erantzun diezaieke ezetz inskribatzeko edo anotatzeko eskariei, eta, betiere, ezezkoa arrazoitu egin beharko du.

3.– Pertsona eta entitate publiko nahiz pribatu guztiek dute errejistroa kontsultatzeko eta errejistroan jartzen duenaren egiaztagiria eskatzeko eskubidea.

4.– Agindu honetako erabakiak arau bidez gara daitezke.

II. IDAZPURUA

ELKARGOETAN BILDUTAKO TITULUDUN LANBIDEAK

I. ATALBURUA

ELKARGO PROFESIONALAK

1. ZATIA

XEDAPEN OROKORRAK

22. atala.– Helburua

Profesionalen elkargoek nortasun juridiko propioa eta jarduteko ahalmen osoa daukate. Helburu izango dute erakunde modura lanbidearen ordezkaritza bakarra izatea, elkargokideen interes profesionalak defendatzea eta elkargokideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesak defendatzea; eta hori guztia gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda.

23. atala.– Lanbidea elkargo batean antolatzea

Lege hau indarrean sartzan denean oraindik elkargorik ez daukaten lanbideei aukera emango zaie elkargoan biltzeko, baina soil-soilik lanbide horretan jarduteko unibertsitate-mailako titulua behar baldin bada eta interes publikoko arrazoirik badago.

24. atala.– Berezko eginkizunak

Hona hemen elkargo profesionalen berezko eginkizunak:

- a) Etika profesionala eta herritarren eskubide eta interesekiko errespetua zaintzea.
- b) Lanbidean nola jardun arautzea, dagokion esparruan eta indarrean dagoen legeriaren barruan.
- c) Profesionalen jarduna legezkoa eta egokia den zaintzea eta kideek betebeharrak eta eginkizunak betetzen dituzten begiratzea.
- d) Diziplina-ahalmena erabiltzea, 19. atalean zehaztutako moduan.
- e) Irizpide orientatiboak prestatzea, kostak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostak tasatu ahal izateko.

f) Ordainak, soldatak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan, eta zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizialetan txostenak ematea.

g) Elkargoko kideei zerbitzu orokorrak eskaintzea eta, bereziki, etengabeko lan-prestakuntza bultzatzea eta prestakuntza horri zor zaion eraginkortasuna zaintzea.

h) Kideen artean, edo horien eta beste pertsona batzuen artean, sortzen diren lan-auzietan esku hartzea, bitartekaritza edo arbitraiaren bitartez, betiere eragindako aldeek eskatzen badute.

i) Lanbide teknikoei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-ones-
tea, bezeroek, eta horien barruan herri-administrazioek herri-administrazio gisa jarduten badute, halaxe eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean. Ikus-onespe-
naren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan
profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri
aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Ikus-onespenak oso argia izan behar du bere xedeari,
kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz, baina ez ditu inola ere
agertuko ez zerbitzu-sariak ez eta kontratuaren baldintzak ere, bai bata eta bai bestea aldeek
adostutako akordioaren barruan finkatu beharko baitira. Ikus-onespenak ez du jasoko lan profes-
ionalaren elementu fakultatiboaren kontrol teknikoa.

Elkargoaren ikus-onespena ezinbestekoa den kasuetan, ikus-onespenaren kosteak modu one-
koa izan behar du, ez gehiegizkoa eta ez diskriminatzailea ere. Elkargoek publizitatea egin behar
diote ikus-onespenaren kostuari, eta bide telematikoen bidez izapidetu ahal izango da.

j) Administrazio publikoari denon interesak lortzen laguntzea, eta, bereziki:

– Administrazio-organoetan parte hartzea, partaidetza hori organoen arauetan erabakita baldin
badago, eta, betiere, arau horietan zehazten den moduan.

– Dagozkion organo eta erakundeek eskatzen dizkieten txostenak eta beren ekimenez egin
nahi dituztenak egitea.

– Eskatzen dizkieten estatistikak egitea.

k) Intrusismoa eta azpilehiaren kontrako beharrezko neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan
jasota dauden ekintzen bitartez.

l) Aurrekontuak onartzea eta kideen ekarpenak arautzea.

m) Gai zehatzei buruzko ezaguerak eskatzen dituzten epaimahaietarako ordezkariak aukera-
tzea, eskatzen dietenean.

n) Urteko memoria egitea, eta elkargo profesionalaren web-orrian argitaratzea.

ñ) Profesionalen elkargoa erabiltzen dutenentzat eta elkargoko zerbitzuak kontsumitzen dituz-
tenentzat arreta-zerbitzua sortzea, kexak eta erreklamazioak ordenagailu bidez bertaraino joan
beharrik gabe aurkezteko aukera ere eman behar duena.

o) Lanbiderako mesedegarriak diren eta elkargoaren helburuak betetzera bideratuta dauden
beste eginkizun guztiak. Eginkizun horien artean egongo da elkargoko kideei buruz eta kideei
ezarri zaizkien zehapen irmoei buruz egiten diren informazio-eskaerak aintzat hartzea, eta oro-
bat Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen
27.4 artikuluari jarraiki Europar Batasuneko edozein estatutako agintari eskudunak egiten
dituen ikuskaritza- edo ikerketa-eskaerak arretaz hartzea, batez ere informazio-eskaerak eta

kontrol-, ikuskapen- edota ikerketa-eskaerak behar bezala arrazoituta egoteari dagokionez eta hortik ateratako informazioa soil-soilik eskaeraren helbururako erabiltzeari dagokionez.

p) Indarrean dagoen legeriak agindutako beste edozein eginkizun, bai eta haien elkargokideen zerbitzuak jasotzen dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileei behar besteko babes eman ahal izateko beharrezko jotzen diren eginkizun guztiak ere.

25. atala.– Eskuordetutako administrazio-eginkizunak

1.– Elkargo profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren berezko eginkizunak ere bete ditzakete, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez agintzen duenean.

2.– Era berean, Euskadiko foru-administrazio eta toki-administrazio publikoen berezko eginkizunak ere bete ditzakete, kasuan kasuko administrazioko dagokion organoak xedatzen duenean erabaki, akordio edo hitzarmen bidez. Erabaki, akordio edo hitzarmen hori dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da.

3.– Eginkizun horiek noraino iritsiko diren eta nola bete behar diren erabakitzeko, eskuordezko xedapen, hitzarmen edo akordioan jartzen duena bete beharko da.

26. atala.– Izatea

1.– Bigarren xedapen gehigarrian jartzen duena bete egin behar bada ere, elkargo profesional batek ere ezin du lanbide bat baino gehiago bildu, non eta Eusko Legebiltzarrak ez duen, denon interesa eta jarduera profesionalen homogeneitatea gogoan, legez bestelakorik erabakitzen.

2.– Lurralde-esparru berean ezin da lanbide bakar baterako elkargo profesional bat baino gehiago izan.

27. atala.– Lurralde-esparrua

Elkargo profesionalaren lurralde-esparrua elkargoa sortzen denean erabakitzen dena izango da. Hala ere, Gobernuak beste lurralde-esparru bat baimentzeko aukera ere izango du, baita lurralde historikoa baino txikiagoa ere, baina, betiere, 29. ataleko 3. puntuan zehaztutako tramite berberak erabilita.

28. atala.– Izena

1.– Elkargo profesionalen izenak «elkargo» hitza jaso beharko du dagozkion lanbide eta lurralde-esparrua zehaztearekin batera.

2.– Izenean edozein aldaketa egin behar bada, 29. ataleko 3. puntuan jasotako izapideak bete beharko dira.

29. atala.– Sorrera

1.– Artikulu honetako 3. paragrafoan jasota dagoen kasuan izan ezik, profesionalen elkargoak sortzeko, beharrezkoa izango da Eusko Legebiltzarraren lege bat, arlo jakin bakoitzeko profesional interesatuek –behar besteko eta behar bezala egiaztatutako ordezkariaren bidez– hala eskatu dutelako emana, baldin eta, dena delako lanbidean jarduteko, hurrengo artikulua erabera elkargoan egotea derrigorrezkoa bada.

2.– Eusko Legebiltzarraren legea beharko da, halaber, elkargo bat beste batetik edo batzuetatik bereizteko, baldin eta elkargo berri horretan sartzeko behar den titulazioa jatorrizko elkargoan sartzeko behar zena ez bada.

3.– Elkargo baten sorrera beste bat edo batzuk deuseztatzeagatik edo esparru zabalagoko beste batetik bereizteagatik gertatzen denean, eraginpeko elkargo guztien aldeko irizpena beharko da. Gero, dagokion kontseilu profesionalak txostena egin beharko du derrigor, eta, azkenik, Jaurlearitzak dekretua emango du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko delarik.

4.– Sortutako elkargo profesionalak nortasun juridikoa lortuko du sorrera-legea indarrean jartzen denean, eta jarduteko gaitasuna, berriz, elkargoko gobernu-organoak eratzen direnean. Eratze horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

30. atala.– Elkargoko kide izatea

1.– Lanbide elkargodunetan aritzeko ezinbesteko baldintza izango da lanbide bakoitzari dagokion elkargoan sartzea, betiere egokitzen zaion legean hala ezarrita badago.

2.– Administrazio publikoarekin administrazio-zuzenbidean edo lan-zuzenbidean oinarritutako zerbitzu-harremana duten profesionalak ezin izango zaie baldintza hori eskatu. Baina, beren kontura lan egin nahi baldin badute eta aurreko azpiatalaren arabera baldintza hori eska badaiteke, elkargoko kide izan beharko dute.

3.– Atal honetan xedatutakoaz gainera, aldibaterako lehenengo eta bigarren xedapenetan ezarritakoa ere kontuan hartu behar da.

31. atala.– Deuseztatzea

1.– Elkargo profesionalak deuseztatzeko beharrezkoa izango da Eusko Legebiltzarraren legea, atal honetako 3. azpiatalean aurreikusten den kasuan izan ezik.

2.– Deuseztatze-legeak berak zehaztuko ditu halako eta halako elkargo desagertzeak sortuko dituen ondorio juridikoak, haren ondarearen kitapenerako prozedura eta eskubideak eta betebeharrak ezarriko ditu, eta soberakinik bada, haren xedea erabakiko du, dagokion elkargoaren estatutuetan xedatutakoari jarraiki.

3.– Elkargo bat deuseztatzen baldin bada lehenagotik sortutako beste batean edo batzuetan desegin delako edo beste bat edo beste batzuk sortu direlako, 29. ataleko 2. edo 3. puntuko izaipide berberak bete beharko dira.

4.– Deuseztatzen den elkargo profesionalak izaera juridikoa eta gaitasuna ere galdu egingo ditu desegiteko araua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik aurrera, non eta ez den desegin beste elkargo profesional berri bat edo batzuk sortu direlako. Halakoetan, desegiteak indarra izango du sorrerak indarra duen une berean, eta, betiere, 29. ataleko 4. puntuan erabakitakoarekin bat.

32. atala.– Subrogazioa

1.– Elkargo bat deuseztatzen bada lehenagotik sortutako beste batean edo batzuetan sartzin delako edo beste elkargo berri bat edo batzuk sortu direlako, deuseztatutakoaren erlazio eta egoera juridiko guztiak beste elkargo horiek subrogatuko dituzte.

2.– Deuseztatu den elkargo profesionalaren lurralde-esparrua beste elkargo batzuen artean banatu behar bada, beste elkargo horiek desegin denaren erlazio eta egoera juridiko guztiak subrogatuko dituzte. Banaketa nola egin elkarrekin erabaki beharko dute, baina, erabaki hori hartzen ez duten bitartean, kotitularitatea izango dute: zati ezineko kuotak beren artean banatuko dituzte, elkargoa desegin denean leku bakoitzean geratu den kolejiatu-kopuruaren arabera.

2. ZATIA

ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

33. atala.– Estatutuak

1.– Elkargo profesionalak autonomoak izango dira beren estatutuak egin eta onartzeko, baina, betiere, lege hau bete beharko dute. Lege hau bete behar duen notario-elkargoak (bakarra nahiz bat baino gehiago izan) Notarioen Araudia bete beharko du, araudi horrek estatutu-balioa duenetan.

2.– Elkargoen barruko egitura eta funtzionamendua demokrazia antolatu behar dira.

3.– Hona hemen estatutuetan zer arautu behar den derrigorrez:

a) Izena, helbidea eta lurralde-esparrua.

b) Elkargoaren berezko helburuak eta eginkizunak.

c) Gobernu-organoen izenak, osaera eta aukeratzeko sistema eta organo horietako partaide izateko baldintzak.

d) Batzaren eta gobernu-organoen deialdia, osaera eta funtzionamendua.

e) Errejimen ekonomikoa.

f) Diziplina-arauak.

g) Kideen eskubide eta betebeharrak.

h) Elkargoko kide bilakatzeko eta kide izateari uzteko baldintzak. Lege honetako 39. atalean jartzen duena bete beharko da beti.

i) Elkargoak hartzen dituen erabakien aurrean kideek erabil ditzaketen errekurtsuak.

j) Estatutuak aldatzeko prozedura eta, bereziki, aldaketa eskatzeko gutxienerako kide-quoruma. Gutxienerako quorum hori, gehienez ere, kide guztien ehuneko hogeita bosta izango da.

k) Deuseztatze-prozedura eta kitatze-errejimena.

4.– Estatutuak egitea eta aldatzeko lehenengo pausoa ematea gobernu-organoren zeregina izango da, non eta aldaketa hori ez duen gutxienerako kide-quorumak eskatzen. Gutxienerako quorum hori estatutuetan zehaztutakoa izango da.

5.– Estatutuak eta estatutu-erreforma guztiak Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari jakitera eman behar zaizkio, sail horrek behin betiko onarpena agindu bidez eman dezan. Agindu hori eman, lege honen 53. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, estatutuen legezotasuna egiaztatu ondoren emango da. Horretarako, lehenago, dagokion kontseiluaren –halakorik balego behinik behin– eta kasuan kasuko lanbidearen inguruko eskumenak dituen sailaren derrigorrezko txostena behar da.

6.– Onarpen-agindua, estatutuak eta estatutu-erreformak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta Tituludun Lanbideen Errejistroan inskribatuko dira.

34. atala.– Gutxieneko antolaketa

1.– Elkargoaren egiturak honako organo hauek izan behar ditu:

- a) Batza.
- b) Gobernu-organoa.
- c) Lehendakaritza-organoa.

2.– Hierarkiaz beste hiru horien azpitik, estatutuen bitartez organo gehiago sortzeko aukera ere badago.

35. atala.– Batza

1.– Batza elkargo profesionaleko organo gorena da, izena batzar, batzorde nagusi edo estatutuetan ageri den beste edozein izan.

2.– Batza eskubide osoko kide guztiek osatzen dute, jardunean ari direnak izan edo ez.

3.– Elkargo profesionaleko batzari dagokio:

a) Estatutuak onartu eta aldatzea. Kideek eta dagokion kontseilu profesionalak emendakinak aurkeztu ahal izango dituzte.

b) 36. atalean aipatutako gobernu-organoa osatuko duten kideak aukeratzea.

c) Elkargoko aurrekontua eta kontuak onartzea.

d) Lege, araudi eta estatutuetan emandako beste edozein ahalmen.

4.– Batzak urtean behin bildu beharko du gutxienez, gobernu-organoak deituta, aurreko zenbakiko c) azpiatalean aurreikusitakoa betetzeko bederen.

5.– Aurreko azpiatalean xedatutakoaz gain, batzarako deia gobernu-organoak egin beharko du bere kabuz edo, gutxienez, kideen ehuneko hogeiak edo jardunean ari direnen ehuneko hamarrak idatziz eskatuta.

36. atala.– Gobernu-organoa

1.– Gobernu-organoak, izena gobernu-batzorde, zuzendaritza-batzorde edo estatutuetan ageri den beste edozein izan, elkargo profesionala zuzendu eta administratu egiten du, batzak hartutako akordioak bete, diziplina-agintea betearazi eta estatutuetan agindutako gainerako funtzioak ere betetzen ditu.

2.– Gobernu-organoa zenbat pertsonak osatuko duten estatutuetan zehaztuko da. Pertsona horiek batzak aukeratuko ditu kide guztien artetik eta sufragio unibertsala, librea, zuzena eta ezkutukoa erabilita.

3.– Organo honi dagokio:

a) Estatutuak onartzeko edo aldatzeko prozedurari bultzada ematea.

b) Berari dagozkion gaiak proposatzea batzari.

c) Elkargoko aurrekontua eta kontuak egitea.

d) Elkargoko kideen gaineko diziplina-agintea.

e) Batzari laguntzea.

f) Lege, araudi eta estatutuetan ematen zaion beste edozein ahalmen.

4.– Gobernu-organoa hiru hilean behin bilduko da gutxienez. Deialdia, nolanahi ere, organoko bertako lehendakariak egin beharko du edo, bestela, gobernu-organo hori osatzen dutenen ehu-neko hogeiaeren eskariz egin beharko da.

37. atala.– Lehendakaritza-organoa

1.– Lehendakaritza-organoak, izena lehendakari, dekanok, sindiko edo estatutuetan ageri den beste edozein izanda ere, elkargoaren ordezkaria izango da, gobernu-organoaren akordioak bete beharko ditu eta lege, araudi eta estatutuetan ematen zaion beste edozein ahalmen eta eginkizun bete beharko du.

2.– Lehendakaritza-organoaren titularitatea nori dagokion, hari dagokio gobernu-organoa lehendakaritza, estatutuetan beste ezer jartzen ez badu behinik behin.

3. ZATIA

PROFESIONAL KOLEJIATUAREN ESTATUTUA

38. atala.– Kolejiatu-motak

1.– Kolejiatuak eskubide osokoak izango dira sartzen diren elkargoan. Eskubide osoko kolejiatuak bi motatakoak izan daitezke: jardunean ari direnak eta ez direnak jardunean ari.

2.– Elkargokideek eskubidea izango dute beren hasierako elkargoa ez den beste elkargo baten eremuan jarduteko, baldin eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, xede-elkargoak ezarritako arau orokorrak eta espezifikoak errespetatzen badituzte. Ezingo dute gaikuntza eman dien elkargoko organoetan eskubide osoko kide gisa parte hartu.

39. atala.– Elkargoan sartzea

1.– Elkargo profesionalek sarrera-eskaria egiten duten guztiak onartu behar dituzte derrigorrez, baina eskari-egileek, lehenago, kasuan kasuko lanbidean jarduteko legezkotasun zaien titulua egiaztatzea beharko dute eta bete behar dituzten estatutu eta xedapenetan oro har eskatzen zaizkien beste baldintzak ere bete beharko dituzte.

Lanbidea lurralde-elkargoka antolatzen denean, haietako batean sartzea aski izango da, hau da, lanbide-egoitza bakar edo nagusia dagoen lurraldekoan. Europar Batasuneko beste estatu batetik aldi baterako etorritako profesionalen kasuan, Erkidegoko Zuzenbidea aplikatuta indarrean dagoen kualifikazioen aitortzari buruzko araudiari jarraituko zaio.

2.– Elkargo profesionalean edo kolejiatu-mota batean baja ematea, honako kasu hauetakoren batean bakarrik onar daiteke:

a) Interesatuak bere kabuz eskatzen badu.

b) Kuotak ordaindu gabe utzi baditu behin eta berriz, nahiz eta, estatutuetan xedatzen denaren arabera, ordaintzeko eskatu izan lehenagotik.

c) Ez baditu jarduteko baldintzak betetzen. Halakoetan, gabezia hori agertzen den unean gertatuko da baja.

3.– Elkargo profesional bateko kide izateak ez du zerikusirik sindikatueta edo elkarteetan bilzteko eskubideekin.

4.– Elkargoek ezin diete inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik exijitu hasierako elkargoa dagoen lurraldeaz besteko lurralde batean lan egiten duten profesionalei, ez eta elkargoko kuo-tak estaltzen ez dituen zerbitzuen onuradunak izateagatik elkargokideei exijitzen dizkieten ohiko diru-kontraprestazioez bestekoak ordaintzea ere.

40. atala.– Lanbidean jarduteko lurralde-esparrua

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko elkargo profesional batean izena emateak dagokion lanbidean aritzeko aukera ematen du, baina, betiere, balio orokorra duten oinarritzko xedapenetan jartzen duenaren arabera.

2.– Europar Batasuneko herrialderen batean modu iraunkorrean kokatuta dagoen profesional orok, lege honen lurralde-eremuan jardun nahi baldin badu, kasuan-kasuan indarrean dauden arau komunitarioak bete beharko ditu. Horrez gain, profesionalek aukera izango dute beren kasa edo beste batzuekin batera jarduteko, jarduera profesional berdinekoekin edo bestelakoekin. Beren kasa edo besteren batekin jardunda ere, sozietate moduan jardun dezakete, betiere legeek baimentzen dituzten sozietateak eratuta.

II. ATALBURUA

KONTSEILU PROFESIONALAK

1. ZATIA

XEDAPEN OROKORRAK

41. atala.– Sorrera

1.– Lanbideren batek elkargo-antolaketa duen guztietan izango da kontseilu profesionala –bat baino ez– osatzeko aukera. Horretarako, dagozkion elkargo profesionalak batu beharko dira.

2.– Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizar-tearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta.

3.– Kontseilua sortzeko, beharrezkoa da sorrera-ekimenak lanbide bereko elkargo guztien aldeko iritzia jasotzea. Behin ekimena zehaztutako moduan plazaratu ondoren, kontseilua Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez sortuko da, lege honetako 56.3 atalean xedatutakoaren arabera.

4.– Tituludun lanbide batek Euskal Autonomia Erkidegoan elkargo profesional bakarra baldin badu, jardute-esparrutzat Autonomia Erkidego osoa duena, elkargo horrek kontseilu profesionalen eginkizunak hartu ahal izango ditu.

5.– Kontseiluak nortasun juridikoa lortuko du sorrera-dekretua indarrean jartzen denean, eta jarduteko gaitasuna, berriz, gobernu-organoak eratzen direnean. Eraketaren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

6.– Kontseiluen barruko egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute.

42. atala.– Berezko eginkizunak

1.– Hona hemen kontseilu profesionalen berezko eginkizunak:

- a) Lanbidearen arau deontologiko komunak jaso eta sortzea.
- b) Bere estatutuak onartu eta aldatzea eta, atal honetako bigarren zenbakian xedatutakoarekin bat, lanbidearen jarduna arautzea.
- c) Elkargo profesionalen arteko auziak konpontzea arbitraiaren bidez.
- d) Elkargoen ekintzen aurkako errekurtsioak erabakitzea.
- e) Diziplina-agintea erabiltzea, 19.2 atalaren arabera.
- f) Arau-egitasmoak direla-eta Gobernuak eskatzen dizkien irizpenak egitea, 54. atalaren arabera.
- g) Kontseiluko bertako aurrekontuak onartzea eta elkargoek gastuetan izan behar duten partaidetza hein berekoa izan dadin, partaidetza hori zuzen zehaztea.
- h) Jarduera profesionala legezkoa eta egokia den eta elkargo profesionalen funtzionamendua zuzena den begiratzea, helburua herritarrekiko errespetua eta herritarren eskubideak zaintzea izanik. Elkargoen funtzionamenduak eragindako kexak konpontzea.
- i) Hutsuneak betetzeko asmoarekin betiere, kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatu, sortu eta antolatzea kultura sustatzeko, gizarte-laguntza emateko, osasun-laguntza emateko eta lankidetzaz indartzeko. Era berean, lanbiderako komenigarriak diren itun eta akordioak ere egingo dituzte administrazioarekin eta dagozkion erakunde eta entitateekin.
- j) Beste edozein legeriak agintzen dizkienak.

2.– Kontseilu profesionalak lanbiderako estatutu nagusi bakar bat onar dezakete, baina, horretarako, kide guztien bi hereneko gehiengoa behar da; lehenagotik elkargo eta kolejiatuen aurrean jarri behar da informazio publikorako, hilaitez gutxienez, nahi dituzten arrazoibideak azal ditzaten epe hori bukatu aurretik. Araudien kasuan oro har egin behar den moduan, estatutu hori indarrean jarriko da Eusko Jaurlaritzak behin betiko onarpen-dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen duenetik aurrera, lege honetako 56.3 atalean jartzen duenaren arabera.

43. atala.– Eskuordetutako administrazio-eginkizunak

Kontseilu profesionalak berez Euskadiko administrazio publikoenak diren, hau da, administrazio autonomiko, foru-administrazio edo toki-administrazioarenak diren eginkizun batzuk ere izan ditzakete, hain zuzen ere, 25. atalean jasotako administrazio-eginkizunak elkargoek nola betetzen dituzten zaindu edo koordinatzeko lana, betiere, 25. atal horretan zehazten den moduan bete behar dutena.

44. atala.– Izena

Kontseilu profesionalen izenean ikontseilu hitzak agertu behar du, dagokion lanbidearekin eta lurralde-esparruarekin batera.

2. ZATIA

ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

45. atala.– Estatutuak

1.– Kontseilu profesionalek beren estatutu propioak izango dituzte. Estatutu horiek gutxienez 33.3. atalean aurreikusten dena jaso beharko dute, aplikazioari dagokionean.

2.– Kontseilu profesionaleko kide guztien gehiengo osoak onartu beharko ditu estatutuak, eta, horrezaz gain, beharrezkoa izango da elkargo bakoitzeko ordezkariatzako kideren baten aldeko botoa. Estatutuak onartu aurretik jendaurrean jarriko dira, hilabeteko epez gutxienez, elkargo profesionalak eta elkargo horietako kideak jakinaren gainean egon daitezen.

Elkargo profesionalek eta elkargo horietako kideek egoki irizten dieten arrazoibideak aurkeztu ahal izango dituzte.

3.– Estatutuak onartzeko, argitaratzeko eta inskribatzeko, aplikaziokoa izango da 33. ataleko 5. eta 6. azpiataletan agindutakoa.

46. atala.– Antolaketa

1.– Kontseilu profesional guztiek batza, gobernu-organoa eta lehendakaritza-organoa izan beharko dute, gutxienez. Horrezaz gain, bestelako organo batzuk ere eduki ahal izango dituzte, estatutuek zehazten dituzten osaerarekin eta zereginekin.

2.– Elkargo bakoitzeko ordezkariatzari elkargoek berek gobernu-organoen bitartez hartutako akordioen arabera erabakitzen duten boto-kopurua dagokio. Akordiorik ezean, elkargo bakoitzeko kide-kopuruan oinarritutako sistema ezarriko da. Erroldarik handiena duen elkargoari gainerakoei banan-banan hartuta baino ordezkari gehiago egokituko zaizkio, baina elkargo handienaren ordezkari-kopurua ez da izango gainerako guztien ordezkari-kopuruaren batuketa baino handiagoa.

3.– Lehendakariak bere gain hartzen du kontseiluaren ordezkapena.

4.– Estatutu-araurik ezean, lehendakaritza txandaka aldatuko da elkargo profesionaletako lehendakaritza-organoetako titularren artean, bi urtez behin, kiderik gehien dituenetik hasi eta gutxien dituenera heldu arte. Kasuan kasuko gobernu-organoak aukeratuko ditu kontseiluko gainerako kideak.

47. atala.– Funtzionamendua

Kontseiluak nahitaez bildu behar du hiru hilean behin, gutxienez, eta, nolana ere, lehendakariak deitzen duen aldioro edo kideen ehuneko hogeiak eskatzen duen aldioro.

III. ATALBURUA

ELKARGOEI ETA KONTSEILU PROFESIONALEI, BIEI, DAGOZKIEN XEDAPENAK

48. atala.– Araubide juridikoa

1.– Elkargo eta kontseilu profesionalak administrazio-zuzenbidearen menpe daude, zuzenbide publikoko korporazioak dira eta.

2.– Salbuetsita daude izaera zibileko edo penaleko arazoak, horiek bakoitzari dagokion araubide juridikoaren pean daudelarik; salbuetsita daude, halaber, langileekiko harremanak, horiek lan-legeriaren arabera gidatuko dira eta.

3.– Zuzenbide pribatuak gidatuko ditu, halaber, elkargo profesionalen ogasuneko gai propioei dagozkien ondarea, kontratazioa eta beste edozein ezaugarri.

49. atala.– Errekurtsoak

1.– Elkargo eta kontseilu profesionaletatik datozen administrazio-zuzenbideko egintzak amaiera ematen diote administrazioarekiko auzigaien jurisdikzioaren aurreko administrazio-bideari, indarrean dagoen legerian xedatzen denaren arabera.

2.– Hala ere, errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio dagokion kontseiluari edo, kontseilurik izan ezean, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, estatutuek hala xedatzen dutenean. Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak, kasuan kasuko lanbidearen arabera dagokion sailak txostena egin ondoren, erabakia hartuko du. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan errekurtsu arruntetarako aplikagarriak diren arauak gidatuko dute errekurtsua.

3.– Elkargoek eta kontseiluek eskuordetzan eman zaizkien administrazio-zereginak betetzekoan agindutako egintzen aurka aurkeztutako errekurtsuak ezagutzeko administrazioak duen eskumena ez du kaltetuko aurreko azpiataletan xedatutakoak.

50. atala.– Baliabideak

1.– Elkargo eta kontseilu profesional bakoitzak bere jarduera garatzeko beharrezko dituen baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu eskueran. Elkargoek eskainiko dituzte kontseiluetarako giza baliabideak, elkargoetako estatutuek besterik xedatzen ez badute behintzat. Elkargokideek jarritako kexa edo erreklamazioei aurre egiteko bestekoak izan behar dute baliabideak. Horrez gain, kontsumitzaile eta erabiltzailentzako arreta-zerbitzua eduki behar dute profesionalen elkargoek, elkargokideen jarduera profesionala edo kolegiatua dela-eta inork aurkezten dituen kexa eta erreklamazioei erantzuteko. Zerbitzu hori erregulatzean, kontuan hartu behar da, halaber, kexak eta erreklamazioak mezu elektronikoz eta urrundik aurkezteko aukera.

2.– Elkargo-erakundeek web-orria eduki behar dute profesionalak aukera izan dezaten, Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean aurreikusita dagoen leihatila bakarraren bidez, elkargoko kide egiteko, lanbide-jardueran aritzeko eta baja emateko egin beharreko izapide guztiak egiteko, puntu bakar batetik, elektronikaren bidez eta urrundik, betiere aipatutako 17/2009 Legearen 18.2 artikulua jarritako baldintzetan.

3.– Elkargo eta kontseilu profesional bakoitzak bere aurrekontua izango du. Aurrekontua gutxi gorabeherakoa izango da, eta urte bakoitzerako aurrez ikusten diren diru-sarrera eta gastu guztiak jasoko ditu.

4.– Profesionalen elkargoak eta kontseiluak auditoria pasatzera derrigortuta daude. Aurrekontuaren ekitaldi bakoitzean egingo zaie auditoria, estatutuetan jarrita daukaten moduan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokion fiskalizazioari kalterik egin gabe, haren lege arautzaileak ezarri bezala.

51. atala.– Prestakuntza praktikoa

1.– Elkargo profesionalak eta, hala egokituz gero, elkargo profesionaletako kontseiluek prestakuntza praktikoko ikastaroak emango dituzte elkargoko kideentzat, beren lanbidean jarduteko baliagarriak baldin badira, estatutuetan ezartzen den moduan.

2.– Elkargoek edo kontseiluek emandako irakaskuntza praktikoa horiek kontuan hartuko dute aldi-aldi indarrean dagoen hezkuntzari buruzko legeriak xedatzen duena.

52. atala.– Lanbide bereko gainerako erakundeekiko harremanak

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko elkargo eta kontseilu profesionalek EAEtik kanpo dauden lanbide bereko beste erakundeekin dituzten harremanak akordio bidez ezarriko dira.

IV. ATALBURUA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIKO HARREMANAK

53. atala.– Administrazio-jardueraren izaera arautua

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak lege honek emandako eskumenak betetzera-koan izango duen jarduerak izaera arautua izango du, nolahi ere.

54. atala.– Nahitaezko txostenak

Kontseilu profesionalek, edo horiek izan ezean elkargoek, nahitaez eman behar dute arauzko egitasmo guztiei buruzko txostena, lege honetan garatutako gaiari buruzkoa izanez gero.

55. atala.– Elkarren arteko harremana

Lege honen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera izena emandako elkargoek, kontseiluek eta Autonomia Erkidegoa baino esparru zabalagoak beste batzuen delegazioek, batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak, bestetik, beharrezkoak diren harremanak edukiko dituzte alde bien premiak, izatearen funtsa diren interesetatik eta xedeetatik eratorritakoak, betetzeko.

56. atala.– Administrazioko organo eskudunak

1.– Lege honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko organo bati ematen ez zaizkion eskumenak Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak gauzatuko ditu, elkargoen lanbideko ezaugarri orokorrei dagokienez eta erakunde eta korporazio-mailako ezaugarriari dagokienez.

2.– Lanbidearen edukiei buruzko gaietan, dagokion lanbidearekin lotuta dauden eskumenak dituen sailarekin izango dituzte harremanak.

3.– Nolanahi ere, Gobernuaren eskumeneko egintzak eta xedapenak Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta, aurreko azpiatalarekin bat, sail eskudunak elkarren artean proposatuko dituzte.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA.– Lanbide kolejiatuak

Lege hau indarrean jartzean elkargoan antolatuta dauden lanbideak izango dira, aurrerantzean ere, tituludun lanbide kolejiatuak.

BIGARRENA.– Lanbide bat baino gehiago hartzen dituzten elkargoak

Lege honetako 26. atalaren 1. azpiatalean xedatutakoa ez zaie aplikatuko legea indarrean jarri zenean lanbide bat baino gehiago hartzen dituzten elkargo profesionalei, baina elkargo horiek ezin izango dute une horretan duten lanbide-eremua zabaldu.

HIRUGARRENA.– Euskal Autonomia Erkidegoa baino esparru zabalagoa duten elkargo profesionalak

1.– Euskal Autonomia Erkidegoa baino esparru zabalagoa duten elkargoetako profesionalak EAEren eremuan edo txikiagoan elkargoa eratzeko eta estatutu arautzaileak onartzeko aukera izango dute, betiere, lege honek ezartzen duena errespetatuz eta 26.2 atalean xedatutakoa kaltetu gabe.

2.– Nolanahi ere, lege honetako I. idazpuruko II. eta III. atalburuetan eta dagokion tituludun lanbidean eragina duten gainerako xedapenetan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango zaie profesional horiei.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoa baino esparru zabalagoa duten elkargo profesionaletako organo edo delegazioek, beren lurraldearen barruan izaera iraunkorrez izendatu edo eraturakoek, administrazioarekiko harremanetan ordezkari izango dute Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatzen direnean lege honetako 21.1 atalean aurreikusitakoaren arabera.

LAUGARRENA.– Zigorren zenbatekoa egokitzea

16. atalean adierazten diren zigorren zenbatekoa egokitu ahal izango du Gobernuak. Hala ere, ezin izango zaie egokitzapenik egin lege honetan ezarritako zenbatekoei, indarrean jarri eta ondorengo hiru urteetan, gutxienez.

BOSGARRENA.– Gizarte-aurreikuspeneko entitateak

1.– Lege honek ez du eraginik izango une honetan profesionalak osatuta dauden gizarte-aurreikuspeneko entitateengan.

2.– Mutualitate jakin batean egotea derrigorrezkoa izan daiteke edo ez, elkargo bakoitzeko estatutuetan ezartzen denaren arabera eta indarrean dagoen legeriarekin bat.

SEIGARRENA.– Notarioen elkargoaren berezitasuna

Lege hau lurralde-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoan soilik duen edo duten notarioen elkargoari edo elkargoei aplikatuko zaie bitarteko publikoak antolatzeari eta notarioen jardura publikoari dagokion legeria espezifikoko ezarritako espezialitatea ez den orotan, hau da, berez notarioen funtzio publikoari datzekion jardura profesionalak izan gabe, beste profesional batzuk lehiakide direla funtzio horren osagarri gisa burutzen diren jardura profesionalei buruzkoan.

ZAZPIGARRENA.– Tasak

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioaren Aritel eta Herri-prezioei buruzko maitatzaren 31ko 3/1990 Legearen 47. atala aldatu egin da eta 50. atalari 3. azpiatala erantsi zaio. Hona aldaketak:

«47. atala.– Zergaia.– Honako hauek izango ditu zergagai tasa honek: liburuen gaikuntza eta, indarrean dauden xedapenen arabera, Elkarteko Erregistroan, Fundazio-Erregistroan eta Tituludun Lanbideen Erregistroko bigarren sekzioan gaitu edo inskribatu behar diren egintzak, gertaerak eta agiriak inskribatzea, kontsultatzea, ziurtatzea eta konpultsatzea.

50. atala.– Kuota.– Tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:...

3.– Tituludun Lanbideen Erregistroa.

3.1.– Eraketaren, aldaketaren edo iraungipenaren inskripzio bakoitzeko: 5.000 pta.

3.2.– Bestelako inskripzio bakoitzeko: 2.500 pta.

3.3.– Ziurtapen edo konpultsa bakoitzeko: 1.000 pta.».

ZORTZIGARRENA.– Europako Elkarteko araudia

Tituludun lanbideen jarduerari buruzko Europako Elkarteko araudia bete dadila bermatuko du Gobernuak.

BEDERATZIGARRENA.– Estatuko araudia

Elkargo profesionalen errejimenaren oinarriak arautzen dituzten aginduak bere osoan edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarriko araudian birmoldatzen diren unean.

HAMARGARRENA.– Profesionalen elkargoen gaian eskumena duen saila aipatzea

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluen Jardunari buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak bere artikuluetan Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzako Saila aipatzen duen guztietan, profesionalen elkargoen gaian eskumena duen saila ulertu behar da.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

LEHENA.– Elkargo eta kontseilu profesionaletako estatutuen egokitzapena

Elkargo eta kontseilu profesionalek lege honetara egokituko dituzte beren estatutuak, urtebeteko epean, legea indarrean jartzen denetik kontatzen hasita. Egokitzapena egiten ez den bitartean, lehenik dauden estatutuek jarraituko dute indarrean, lege honek xedatutakoari kontrajartzen ez zaizkionean, betiere. Lege honetan eta legea garatzeko arauzko xedapenetan aurreikusitakoek beteko dituzte sor daitezkeen hutsuneak.

BIGARRENA.– Administrazio publikoarekin lotutako medikuntza eta erizaintzako profesionalentzat borondatez elkargoko kide egiteak izango duen eraginkortasuna

Administrazio publikoaren zerbitzuko medikuntza eta erizaintzako profesionalentzat lege honetako 30.2 atalean xedatutakoa aplikatzea eraginkorra izan dadin, aurretik Gobernuak aitorpena egin beharko du dekretu bidez, sail eskudunen proposamenari jarraiki. Medikuntza eta erizaintzako profesional horien zereginetan egon beharko du herritarrak zuzeneko hartzaile dituen lanbide-egintzak burutzeak.

Gobernuak aipatutako dekretua eman aurretik azterlan bat egingo du. Azterlan horren xedea izango da 30.2 atalean aurreikusitako neurriaren eraginkortasunak interes publikoarentzat eta osasun-sistema nazionalaren funtzionamendu bateraturako izan dezakeen eragina aztertzea.

HIRUGARRENA.– Errejistroan inskribatzea

Aldibaterako lehenengo xedapenean aurreikusitako epea iraungi ondorengo sei hilabeteko epean elkargoek eta kontseiluek arau honetan ezarrita dauden errejistro-mailako aginduak beteko dituzte.

LAUGARRENA.– Administrazioak emandako sustapena

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak aurreko aldibaterako xedapenetan aurreikusita dauden aginduak betetzeko sustapen-lana egingo du.

BOSGARRENA.– Tramitazioan diren errekurtsuak

Lege hau indarrean jarri aurretik elkargoen eta kontseiluen egintzen aurka aurkeztutako errekurtsuak tramitazioan jarraituko dute, errekurtsua aurkeztu zen unean indarrean zegoen araudiaren arabera tramitatuko direlarik.

SEIGARRENA.– Eskuordetzan emandako zereginekin jarraitzea

Lege hau indarrean jartzean eskuordetzan emandako administrazio-zereginak dituzten elkargoek eta, hala egokituz gero, kontseiluek zeregin horiek beteko dituzte aurrerantzean ere, modu berean eta norainoko berberekin, aurkakorik xedatzen ez den bitartean behintzat.

ZAZPIGARRENA.– Tramitazioan diren prozedura

Lege hau indarrean jartzean, aurreko arauen arabera hasitako prozedurek lege honen xedape-nei jarraiki beteko dute beren tramitazioa. Aurretik egindako tramiteek beren balioa eta ondorioak izaten jarraituko dute, baldin eta lege honetan ezarritakoaren kontra ez badoaz.

AZKEN XEDAPENA

BAKARRA.– Garapena eta burutzea

Gobernuak ahalmena du lege hau garatzeko edota burutzeko beharrezkoak izan daitezkeen xedapen guztiak emateko.

Ahalmena du, halaber, lege honetako lehenengo eta hirugarren aldibaterako xedapenetan aurreikusitako epeak luzatzeko, beharrezkoa izanez gero.